



## ■ KALERA KALERA

### Martuteneko kartzelara, martxa

Kalera Kalerak antolatuta, martxa egingo dute gaur, Martuteneko kartzelara. Eta zutabe bat Hernanitik abiatuko da, Zinkoeneatik, goizeko 10:00etan; bestea, berriz, 11:30etan Donostiako epaitegitik. 12:00etan, ekitaldia egingo dute kartzelaren aurrean. Sortuk bat egin du deialdiarekin, eta parte hartzeko deia luzatu die herritarrei. ■

## ■ WUKROREN ALDEKO SAN SILBESTREA

# Mozorro eta umore, eta korrika pixka bat!

Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa egingo dute gaur, arratsaldeko 17:30etan hasita.

MOZORROTUTA, korrika, barre algaraka eta giro politoan agurtuko dute urtea gaur, ehunka herritarrek, Hernaniko kaleetan barrena. Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa egingo dute, arratsaldean.

Hiru txandatan izango dira lasterketak. Aurrena, 17:30etan hasita, txikienak abiatuko dira Plazatik, 8 urtetik beherakoak, 300 metroko ibilbidea osatzeko. Eta ondoren, gaztetxoan txanda izango da, 8-13 urte bitartekoa. 800 metro egingo dituzte, 17:45etan abiatuta. Bi adin tarte horietan, doan izango da izenematea, gaur bertan, lasterketaren aurretik.

Eta azkenik, 18:00etan, aterako dira lasterketa nagusiko korrikalariak, 14 urtetik gorakoak; 4 kilometro egin beharko dituzte. Azken orduan ere izango da izena emateko aukera, Plazan bertan, 10 euroan. Dortsalak eta kamixeta teknikoak ere, han banatuko dituzte.

### Herri osoarentzako festa

Lasterketaren helburua hirukoitzza da, antolatzaileek azaldu dutenez: «Wukrora laguntza bidaltzeko errekurtsioak biltzea; adin guztietako jendea hango errealitatera gerturatzea; eta noski, Gabonen barruan, herri osoarentzako festa izatea». ■



Aurreko urteetan bezala, mozorrotuta aterako dira asko, gaur.

## ■ KALEKO ELKARTEA

### Liburu eta disko azoka solidarioa, Plaza Berrin gaur

Igande honetan jarriko du berriro, Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkarteak, liburu eta diskoen azoka solidarioa. Goizeko 10:30etatik 14:00etara egongo dira, Plaza Berrin, 1000tik gora liburu, CD eta biniloizko diskorekin; «guztiak, prezio eta egoera onean». Aukera izango dute herritarrek, baita ere, erabiltzen ez dituzten liburu eta diskoak eramateko: «behar gehien daukatenei laguntzen diegu horrela», azaldu dute. ■

## ■ ODOL EMAILEAK

### Urteko aurreneko zita, asteartean

Datorren asteartean, urtarrilaren 2an, izango dute urte berriko aurreneko zita, odol emailleek. Arratsaldeko 18:30etan hasi eta 20:30etara arte izango da aukera, anbulatorioan. 2017ko azkeneko zitan, abenduokan, espero baina gutxiagok eman zuten odola: 46 lagun izan ziren, eta horietatik bakarra izan zen berria. ■

## ■ PORTU AUZOA

### Santa Barbarara buelta, gaur

Urtea sasoi onean bukatzeko, plana prestatu dute Portuko auzotarrek, gaurko. Santa Barbarara mendi buelta egingo dute goizean, urte bukaera ospatzeko. 10:30etan abiatuko dira elkarrekin, plazatik. Asteartean, berriz, umeentzako pelikula jarriko dute, 17:30etan. ■

## ■ BERTSO ESKOLA ETA OHITURA ZAHARRAK

# Urte zaharrari eta berriari, erronda kantari

Arratsaldeko 17:00etan jarri dute elkartzeko zita, udaletxeko arkupeetan, Urte Zahar erronda egiteko. Bertsoan eta kantari aterako dira, Bertso Eskolako eta Ohitura Zaharrak abesbatzako kideak.

ATZOKO bertso jaialdiari, gaur emango diote segida eta bukaera, urteroko beste zita batekin; Urte Zahar errondarekin.

Hernaniko Bertso Eskolako kideak eta Ohitura Zaharrak abesbatzakoak bat eginda, bertsoan eta kantari aterako dira, gaur arratsaldean. Udaletxeko arkupeetan jarri dute elkartzeko zita, 17:00etan; eta bertatik abiatuko dira.

Baserritarrez jantzita, kale, plaza eta tabernetan barrena ibiliko dira, ohiko doinu eta ateraldiekin urteko azkeneko orduak girotzeko, herritarrei. Umorea eta giro ona izango dituzte lagun, ziur. ■



Biteriko aretoa topeetaraino bete zuen atzoko saloak. Argazkian, Maialen Lujanbio eta Eli Pagola, ofiziotan.

**gse**  
Asesoreak

**Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua**

Gudarien plaza, 13  
Telfnoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
[gse@gseasesores.net](mailto:gse@gseasesores.net)

**CATALANA OCCIDENTE**  
Aseguruak

Atzeta 30 -  
20120 Hernani  
Telf - 943-332440  
Fax - 943-556602

-Bautista -Blurrarena -Etzegolen

**Aitor Ruiz de Eguino**

OPARI ARTISTIKOAK  
ESKULTURA, PINTURA, ZERAMIKA  
Prezioak web orrian, %20 deskontua  
Santa Barbara 58, Hernani  
[www.aitorruizdeegino.com](http://www.aitorruizdeegino.com)  
685 76 82 45

ANTZIOLA, 3  
943 55 17 91  
HERNANI

**ANTZIOLA**  
OKINDEGIA

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALZAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizeta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
 ☦ **GAUR:** / Egunez: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** / Gauez: **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087**  
**BIHAR:** / Egunez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** / Gauez: **Castilla** Urbieta, 7 (Hernani) **943 552941**

**EGURALDIA** **GAUR** Goizean lainotuta egongo da tarteka, baina ateri eutsiko dio. Arratsaldean, aldiz, fronte bat sartu eta euritara joko du. Haizea zakar ibiliko da orduan, eta tenperatura jaitsiko da: **Min.9° / Max.16°**  
**BIHAR** Eguraldi aldakorra izango dugu bihar ere. Goizean lainoak eta ostareak tartekatuko dira, baina pixkanaka lainotuz joango da, eta euria egingo du gauean. **Min.7° / Max.16°** (euskaime)

## UDALA PIROTEKNIA

# Kaxkotik kanpo, toki irekietan eta 15 minutuz bakarrik, piroteknia

Udalak jakinarazi du, debekatuta dagoela Kaxkoan piroteknia erabiltzea, eta toki irekietan, 00:00etatik 00:15etara bakarrik dagoela baimenduta.

URTE Zahar gaueko pirotekniaren erabileraren inguruan, oharra eman du Hernaniko Udalak: «jakin badakigu aspaldiko ohitura dela, piroteknia erabiltzea urte zaharrari agur esan eta urte berriari ongietorria emateko. Baina modu be-

rean, Udalaren ardura da herritarren segurtasuna bermatzea».

Eta horregatik, «ohitura eta segurtasunaren arteko oreka lortu nahian», Udalak erabaki du 15 minutura murriztea pirotekniaren erabilera (00:00etatik

00:15etara); Kaxkoan piroteknia debekatzea, egurrezko egitura duten eraikin asko egonda, sua sortzeko eta zabaltzeko arrisku handia dagoelako; eta Kaxkotik kanpo, eremu irekietan bakarrik uztea piroteknia erabiltzen. ||

## GO!AZEN 4.0

### Telebistatik Biteriko aretora salto, gaztetxoak kantari jartzeko!

Ostegunean eskaini zuten Biteri kultur etxean, ETB1eko Go!azen telesailako protagonistek, Go!azen 4.0 antzezlan. Bi saio eman zituzten arratsaldean, elkarren segidan; eta bietan bete-bete ageri zen kultur etxeko areto nagusia, teleisaleko protagonistak zuzenean ikusteko irrikaz zeuden haur eta gaztetxoekin, eta baita gurasoekin ere. Beraien kantu eta dantzekin, Go!azeneko gazteek kantari jarri zituzten haur eta gaztetxoak ere! ||



Ainhoa Larrañaga hernaniarra izan zen antzezleen artean.

## KAXKO ELKARTEA

# Proposamen eta eskaera sorta zabala, Kaxko elkarteak Udalarari

Kaxko elkarteak aditzera eman du, Udalarari helarazi dion eskaeren zerrenda, eta txotx batzorderako egin dituen proposamenak.

KAXKOKO hainbat gai, alderdi eta kezka inguruan, bere eskaera eta proposamen sorta helarazi dio Kaxko elkarteak, Hernaniko Udalarari; eta zerrenda hori aditzera eman du, ohar baten bitartez.

Bertan jasotzen dira, bate-tik, egindako eskaerak. Haste-ko, nahi du konpromisoa eskatzea pankartak eta kartelak jartzen dituztenei, horiek gero kentzeko, eta baita erabilitako soka eta zintak ere. Modu berean, kartelak jartzeko eta pintaketentzako arautegia ere, eguneratzea eskatu du.

Etxeen balio galeraren arrazoiak ezagutzeko azterketa egitea ere eskatu dio, edota Kaxkoko Ondare Historikoa hobeto zaintzea, pibote eta zakarrontzi gehiago jartzea, Udaltzainen kopurua handitzea egoera berezietan, seinalizazioa hobetzea, haur parkeak berri eta konpontzea...

### Txotx batzorderako ere, hainbat proposamen

Eta eskaera horiekin batera, bestetik, hainbat proposamen egin ditu, txotx batzorderako. Horietako bat da, Biltzarra an-

tolatzea maiatza baino lehen, atsedenerako eskubidearen eta gaueko aisialdiaren gozamenaren inguruan eztabaidatzeko.

Modu berean, proposatzen du ez erabiltzea Eusko Jaurlaritzak baimendutako gaueko ordu guztiak, gauez ez baimentzea edariak kalera ateratzea, eta gauetan gehiegizko turismoa duten beste herrietako lorpenak aplikatzea.

Azkenik, proposatu du morkortuta daudenak kontrolatu, Ertzaintzaren protokoloa aktibatu, eta Udaltzain gehiago kontratatzea, besteak beste. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **ANA ISABEL IZAGUIRRE ELORZA**

Herenegun hil zen, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Gurasoak: Rosario (†) eta M<sup>a</sup> Carmen (†); senideak: Arantxa eta Mitxel, Iñaki, Jon; ilobak: Olaia, Gaizka; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela **ETZI, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 31an

Helbidea: Santa Barbara, 87

† **ANA ISABEL IZAGUIRRE ELORZA**

-Goian bego-

Beti gurekin

**LIZEAGA CLAVER FAMILIA**

Hernanin, 2017ko abenduaren 31an

† **ANA ISABEL IZAGUIRRE ELORZA**

-Goian bego-

**ETXEKO LEHENGUSUAK: JOXEAN ETA MAITE, IMANOL, TXARO ETA SEBAS**

Hernanin, 2017ko abenduaren 31an

**ANA ISABEL IZAGUIRRE ELORZA**

Beti izango zaitugu gogoan

**MARTIN SANCHEZ FAMILIA**

Hernanin, 2017ko abenduaren 31an

**II. URTEURRENA**

**Milagros Ormazabal Lasa**

2016ko urtarrilaren 1ean hil zen, 80 urte zituela

-Goian Bego-

Betiko izango zaitugu gogoan.

**ETXEKOAK**

Urteurreneko meza, **BIHAR, ASTELEHENA**, eguerdiko **12:00etan**, **SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko abenduaren 31an

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua alokagai. Goizuetako herriko plazan pisu argitsua alokagai, 450€tan. Deitu: 647 61 45 13  
**ETXEKO KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.  
**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)